

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

Tolosako Udaletxean, 2014ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo aztertzeke udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 28 de enero de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria  
Asier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Mikel Arreseigor Astibia  
Rosa Maria Urkola Irigoyen  
Jon Koldobika Arsuaga Artola

Ainhoa Etxeberria Aranburu  
Jon Aldazabal Etxeberria  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratuak:

Olatz Peon Ormazabal (2. puntuan bertaratua)  
Miren Ezkiaga Etxezarreta  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin-behineko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2014.01.28**

**Eguneko gai zerrenda**

**Orden del día**

1.- Ondorengo akta onartzea:

2013ko abenduaren 26ko Osoko Bilkurakoa

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2013ko abenduaren 1etik 31ra (1661/2013-1811/2013).

3.-"Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan" mozioaren onarpena.

4.-"Udaberri" dantza taldeari lokal bat uzteko akordioaren onarpena.

5.- Erregu-galderak.

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 26 de diciembre de 2013.

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 31 de diciembre de 2013 (1661/2013-1811/2013).

3.- Aprobación de la moción "En defensa de la autonomía y el derecho a decidir de las mujeres".

4.- Aprobación de la cesión de un local al grupo de danzas "Udaberri".

5.-Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1.- Ondorengo akta onartzea:**

**2013ko abenduaren 26ko Osoko Bilkurakoa**

**1.- Aprobación de la siguiente acta:**

**Sesión Ordinaria de 26 de diciembre de 2013.**

Lehenik, Jokin Azkue Arrastoa, EAJko zinegotziak, adierazten du: "*Egia esan, euskararen ezagutzak badu prestigioa, tituluak e.a., baina ahalegin berezia egin beharko genuke euskararen erabilera ez formaletan erabiltzeko.*"

*Eta honako hau jarri behar du: "Egia esan, euskararen ezagutzak badu prestigioa, tituluak, EGA, e.a., baina euskearen erabilerak ez dirudi maila bereko prestigioa duenik. Ahalegin berezia egin beharko genuke euskararen erabilera ez formaletan erabiltzeko."*

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2014.01.28**

**2.-Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2013ko abenduaren 1tetik 31ra  
(1661/2013-1811/2013).**

**2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la  
alcaldía:**

**Del 1 al 31 de diciembre de 2013  
(1661/2013-1811/2013).**

Alkatetzak, 2013ko abenduaren 1tetik 31ra bitartean (1661/2013-1811/2013) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

Momentu honetan, Olatz Peon Ormazabal, EAJko zinegotzia, bertaratu da.

Alkateak gaizerrendaren ordena aldatu du. Lehenengo 4. puntua tratatu da.

**4.-“Udaberri” dantza taldeari lokal bat  
uzteko akordioaren onarpena.**

**4.- Aprobación de la cesión de un local al grupo  
de danzas “Udaberri”.**

Kultura departamentuak honako proposamena egin du: Udaberri datzan taldeari Igeralde kaleko 2. zenbakidun lokala lagatzea 20 urterako.

Udal inbentarioan lokal hori patrimonial bezala kalifikatzen da.

Zuzeneko kontratazioa bideratzeko arrazoiak 2014ko urtarrilaren 14an Kultur Teknikariak egindako txostenean egiaztatzen dira.

Txostenak zesio kontratua sinatu behar dela adierazten du eta, bide batez, bere izaera eta erantzun behar den zenbaterainokoa.

2014ko urtarrilaren 8an, hirigintza teknikariak txostena egin du ondarea baloratuz, 147.697 eurotan.

Kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera ez du aurrekontuen baliabideen %10a gaintitzen.

Kontuan izanik espedienteen agertzen diren txostenak eta Kultur batzordeak, 2014ko urtarrilaren 21ean, jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU:**

**Lehen.-** Igeralde kaleko 2 zenbakiko lokala lagatzeko espedientea onartzea, zuzeneko prozedura bidez.

**Bigarren.-** Zesio hau adjudikatzea Udaberri dantza taldearia, hauek izanik kontratuaren ezaugarri nagusienak:

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

- Xedea: Helburu sozialak aurrera eramateko ihardueretako ematen zio.
- Epea: 20 urterako.
- Prezioa: Urtean 448 euro.
- Gastuak bere kontura izango dira.

**Hirugarren.-** Alkatea ahalmentzea kontratua formalizatzeko.

Parte hartzeak:

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: *“Udaberrik urte askotan lan egin du Euskal Kultura, Euskal musika eta folkloreaken alde. Bereziki, beste lekutan ere bai, baina bereziki Tolosan. Pena merezi du duen lagapen hau eskeintzea. Gustatuko litzaiguke lagapena epe luzeagorako izatea, baina, badirudi, legez ezin dela. Guk bere horretan onartuko dugu.”*

... Igor Ezenarro Balda, Bildu: *“Udaberrri inguruan bildu ginen beraiekin hitzarmena aurrera eramateko. Kultur eragile historikoa da. Hogei urteko zesioa egiten zaio 30 urtekoa ezin delako egin, baina, gure ustetan, beraien etorkizuna bermatzen duen hitzarmena da hau. Eta jarrai dezaleta orain arte bezala kultura sustatzen herri mailan eta nazio mailan.”*

**3.-“Emakumeen autonomiaren eta erabakitzeko eskubidearen defentsan” mozioaren onarpena.**

**3.- Aprobación de la moción “En defensa de la autonomía y el derecho a decidir de las mujeres”.**

Lehenik, honoko arte hartzeak izan dira:

... Jose Ignacio Asensio Bazterra: *“Erabat ados nago mozio honekin. Bai esan, berriro ere gaudela PPren gobernuaren kontrarreforma baten aurrean eta ikusten dugu, nola askotan eta noizik behin, aurreko legealdietan onartu ziren lege aurrerakoiak atzera bueltatzen direla PPren eskutik. Kasu honetan ikusten da emakumeen autonomia eta erabakitze gaitasuren kontra dijoan legea dela, eta hori ezin da onartu.”*

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: *“Abortua debekatzeak ez du balio izan haurdunaldiak eteteko ebakuntza kopurua murrizteko; hori baino gehiago emakumeen osasunarentzako arrisku asko eragin ditu egoera txarrean egindako interbentzioen ondorio gisa eta horrekin batera eman da abortatzeko turismoa deitzen dena. Halaber, epeen arabera arautzen duten Legeriak dituzten herrialdeetan (emakumearen herrialdeen artean) ikusi da abortua araututa egoteak ez dituela suposatzen abortu kopurua handitzeak. Sexuaren inguruko heziketa izatea ala ez, informazioa eta antisorgailuak eskuragarri izatea, maila sozio-ekonomikoa, emakumeen egoera soziala eta haurdun ez geratzeko babes negoziatzeko boterea hobetzeko berdintasun politikak, familiari laguntasuna emateko eta famili bizitza eta lana uztartzeko neurriak eta irritaren sinesmenak dira Mejeria bera baino garrantzitsuagoak abortu kopuruari begira.*

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

Beste alde batetik era aske eta arduratsuan seme alaben kopurua erabakitzeko erreprodukzioaren inguruan erabakiak hartzeko eta sexualtasunaren inguruko gaiak kontrolatzeko oinarrizko eskubideak guztiz onartuta daude. Sexu eta erreprodukzio eskubideak nazioarteko komunitateak onartu ditu giza eskubide gisa hainbat adierazpen, konbentzio, Nazio Batuen hitzarmen eta nazioarte mailan onartutako hainbat agilitan. Horrela ba, sexu eskubideak giza eskubide unibertsalak dira eta askatasun, duintasun eta gizaki guztien berdintasunean oinarritzen dira; eta, gizakien artean eta gizarteetan sexualtasun osasungarria izateko, eskubide hauek onartuak, sustatuak, errespetatuak eta defendatuak izan behar dira gizarte guztietan eta baliabide guztiak erabilia. Sexu eskubideak Giza Eskubidetzat hartzeak berarekin dakartza hainbat ardura pertsonentzat eta Estatuentzat, eta edozein herrialdetako politiketarako oinarria izan behar da osasun, gizarte eta garapenerako politikak egiteko orduan.

Halaber, osasuna izateko eskubidea gaur egun bizitza, duintasuna, autonomia, askatasuna, nortasunaren garapen askea, diskriminaziorik eza, berdintasuna, intimitatea, pribatutasuna eta tratu krudel, bidegabe eta laidogarririk ez pairatzeko eskubideekin erlazionatzen da. Elkarren arteko harreman honetatik uler daiteke osasuna babesteko eskubidea bizitza zentzu biologiko hutsetik baino harapo doala; eta hau ongizatearekin ez ezik, osasunaren adierazgarri sozialekin eta emakume bakoitzak aukeratu duen bizitza egitasmoarekin erlazionatzen da. Egitasmo honek, nortasunaren garapen askerako eskubideak babestua daogela, nahi ez den haurdunaldiak inposatutako eragina izan dezke, aukeratutako ibilbideraekin bateraezina izan daitekeelarik, hau da, zama handiegia izan daiteke eta osasunari eragin.

Era beran, emakumeek haurdunaldiarekin jarraitzearen inguruko erabakia hartzeko duten eskubidea kontuan hartzen hasi da, emakumea eskubideak dituen subjektua delakoan, bere bizitza eta bere gorputza zaintzeko eskubidea duena eta bere erreprodukzio gaitasunaren gaineko erabaki autonomoak hartzeko gaitasuna duena eta bere nortasuna era librean garatzeko eskubidea duena. Horrela ba, Beijing hirian 1995 urtean ospatu zen Emakumearen Mundu Konferentziak Beijingo Adierazpena eta jarduketa Plataforma onartu zuen. Gobernue honakoa onartzen dute "Emakumeen giza eskubideen barruan dagoela sexualtasunarekin erlazionatutako gaien inguruko kontrola eta erabaki askea izatea, hauen barnean sexu eta erreprodukzio osasuna, inposaketarik diskriminaziorik eta bortxakeriarik gabe" Europar Batzordeak abortuaren gaia aztertu dute Giza Eskubideen ikuspuntutik. Zentzu honetan esanguratsuak dira ebazpen batzuk. 2003 urtean Europar Legebiltzarrak ebatsitakoak hala gomendatzen du "emakumeen erreprodukzio osasuna eta eskubideak abortua legezkoa, segurua eta eskura egongo da emakume guztientzat" Estatu kideei eta kide izan nahi duten estatuyez zuzendutako deia egiten da " ez dítatela auziperatu legez kanpo abortua egin duten emakumeak". Europar Batzordeak 2008ko apirilean hartutako erabakiaren arabera Estatuyez gomendatzen zaie "abortua despenalizatu ditzaten, oraindik ez badute egin, eta emakumeei praktika hau berma diezaieten eta oraingo mugak ken ditzaten".

Aipatutako eskubideen onarpenak eta planteamenduak kontuan harturik, gizarte demokratikoek ikusi dute haurdunaldia eteteko erabakiak bi interes kontrajartzen dituela: amak erabaki hori hartzeko eskubidea eta umekiaren bizia botere publikoek babestua izateko eskubidea. Interes arteko gatazka hau, duela hamarkada batzuk konpondu zuten europar ordenamenduak. Emakumeen oinarrizko eskubideak lehenetsi egiten dira haurdunaldiaren lehen faseetan eta haurdunaldiaren fase sehatetik aurrera jaioko dena lehenesten da. Ikuspuntu hau zuzenduta dago emakumeen erabakitzeko eskubidea eta autonomia izateko eskubidea sendotzera, eta kontrajartzen zaio espainiar araudiaren ikuspuntuari. Azken honetan abortua jokaera debekatua da orokorrean, hiru supostuak salbu, eta emakumeak osagilearen preskripzioaren

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

*eskatzeileak baino ez dira, haurdunaldia etetea, beti dgoelarik hirugarren batzuen irizpideen mende.*

*Azkenik animatu tolosar guztiak urtarrilak 31ean TOPICen ospatuko den Hi Haiz Hi jaialdira. Bertan BERDIN SEX aholkularitza sexologikoaren logoaren aurkezpena egingo da. Izan ere heziketa eta informazioa baita bidea ezbaierik gabe.”*

... Rosa M<sup>a</sup> Urkola Irigoien, Bildu: *“Erabateko gaitzespena adierazi nahi dugu PPren Espainiako Gobernuak onartu nahi duen legearen aurrean. Lege honek emakumeen autonomia errotik urratzea dakar eta gure gorputzen zein bizitzen gainean dugun erabakitze gaitasuna erasotzen du. Emakumeak pertsona autonomo, libre eta berdinak garenez, geure bizitzaren eta gorputzaren gaineko erabakiak guri hartzea dagokigu.*

*Popularren asmoa da emakumeei baldintza jakin batzuetan baino ez aitortzea haurdunaldia eteteko eskubidea, eta eskubide hori askatasunez gauzatu daitekeen inongo eperik ez existitzea. Hala zen Espainian 2010 baino lehen, baina pauso bat harago joango direla adierazi du Ruiz-Gallardónek: fetuaren malformazioa ere ez litzateke izango abortua justifikatzeko aski arrazoi.*

*Eskubide izatetik, garai zaharretan bezala delitu izatera pasa da. Abortuak eskubide bat izan behar du; nahi izanez gero, libreki eta dohain eman daitekeen urrats bat izan behar du. Kontra-erreforma honen edukien arabera, 30 urteko atzerakada etorriko da, hamarkadetan borroka feministari esker eskubide sexual eta erreproduktiboan inguruan eskuratutako lorpenak hankaz gora jartzen baitira.*

*Abortu eskubidea murriztuz abortu kopurua jaitsiko dela pentsatzea hipokrisia da. Haurdunaldia eten nahi duen emakumeak eten egingo du, baldintzak edozein direla ere; abortu klandestino kopurua handitzeak ondorio larriak izan ditzake, errekurso ekonomiko gutxien duten emazteentzat zailagoa izango da. Klase edo egoera sozio-ekonomikoak dakarren bazterketa oraindik gehiago gogortzea dakar lege erreforma honek.*

*Gallardonek argi esan du: “emakumea bere rol nagusira bueltatu behar da, alegia, ama eta zaintzaile izatera. Ongizate estatuan murrizketak dauden honetan, etxean behar da emakumea, familiaren zaintzaz arduratzeko”. Kriaren aitzakiarekin ezartzen ari diren murrizketen testuingurua baliatzen ari dira ideologia kontserbadoreenak, beren prezeptu moral eta erlijiosoak inposatzeko eta, berriz ere, emakumeen gorputza eta bizitza kontrolatzeko.*

*Eraso bortitz honen aurrean, desobedientziarako deia egiten dugu; eta Eusko Jaurlaritzari dei egiten diogu lege hau aplikatu ez dezan, eta aborto libre eta doakoa bermatu dezan EAEn.*

*Amaitzeko, gure ustez legeak ez baina prebentzioa landu behar da eta haur eta gazteen hezkuntza afektibo-sexuala garatzeko nahikoa baliabide ezarri eta aktibatu.”*

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, honako mozioa onartu du:

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

"Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO aldatuz. **Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarrizko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboaren aurka (\*)**. Zartada batez ezabatu nahi dute hamarkadako borrokaren bidez lortutako eskubidea: emakumeek beraien bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan erabakitze eskubidea izatea, alegia, inolako tutelarik eta jarraipenik gabe. Egin asmo duten kontrarreformak emakumeen autonomia urratzen du, emakumei heldutasuna, erabakitze gaitasuna eta ardura ukatzen die eta infantilizatu egiten ditu, abortatu ahal izateko **beste batzuekiko menpekotasuna ezarriz**. Hala, **Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreproduktio hutsera murriztu ditu emakumeon gorputzak**. Finean, lege egitasmo honek emakumeak gutxietsi egiten ditu; haien borondatea eta haien bizitzarekiko kontrola haien eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.

Gaur egun, nahi gabe haurdun geratu izana izan ohi da haurdunaldia eteteko arrazoi nagusia. Bada, kontrarreformak emakume horiek guztiak ama

"El pasado 20 de diciembre el Estado español y su Consejo de Ministros liderados por el PP aprobó el anteproyecto de la Ley Orgánica "Protección de la Vida del Concebido y los Derechos de la Embarazada", que viene a modificar la actual LO 2/2010 de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo. **Esta modificación choca de frente con la autonomía de las mujeres, o dicho de otra forma, con los derechos sexuales y reproductivos, que son considerados como derechos humanos básicos (\*)**. Pretenden descartar de un manotazo un derecho logrado gracias a una lucha que ha durado décadas: que las mujeres tengan derecho a decidir sobre su vida sexual y reproductiva, sin ninguna tutela o seguimiento de ninguna clase. Esta contrarreforma que pretenden realizar coarta la autonomía de las mujeres, deniega a las mujeres su madurez, su capacidad de decidir y su responsabilidad, y las infantiliza, haciéndolas **depender de otros** para poder abortar. Así, **los cuerpos de las mujeres se convierten en meros cuerpos reproductivos intervenidos por el Estado y la medicina**. En resumen, este proyecto de ley menosprecia a las mujeres; les arrebatata tanto su voluntad como su control sobre la vida y los deja bajo la tutela del Estado.

Hoy en día, la razón más extendida por la que se aborta son los embarazos no deseados. Pues bien, la contrarreforma obligará a todas esas

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

izatera behartu nahi ditu, emakume horien guztien bizitza baldintzatuz. Eta, era berean, nahi izandako haurdunaldia izan arren, malformazioak edo gaixotasunak identifikatutako kasuetan erabakitze aukera ukatu nahi dute, edozein modutan haurdunaldiarekin jarraitzea behartuz. Bortxaketarik legokeen kasuetan soilik baimendu nahi dute abortua baina horretarako salaketaren baldintza jarritz, jakin badakitenean bortxaketa asko salatu gabe geratzen direla.

Noren izenean egin nahi dute basakeria hau? Noren hobe beharrez? Zalantzarik ez dago emakumeen bizitzak behintzat ez dituela bereziki kezkatzen. Izan ere, indarkeria matxistaren itzalpean erailtzen eta erasotzen dituzten emakumeen bizitzak ez dira Gobernu espainiarraren lehentasuna. Ez da neurri edo baliabide berezirik ezartzen etengabeko eraso eta erailketa hauekin bukatzeko. Era berean, emakumeen bizi-kalitatea okerrera doa, zerbitzu publikoak deuseztatzearekin batera emakumeen bizkar geratzen ari baitira gero eta zaintza-lan gehiago. Esaterako, PPren Espainiako gobernua pertsona dependienteentzako laguntzak deuseztatzen ari da, izan helduak, adin txikikoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen bideratuak. Estatuak bere zereginetatik ezabatzen dituen zaintza-lanak familien gain geratzen ari dira eta, zehazki, familiako emakumeen gain.

¿En nombre de quién pretenden hacer esta barbaridad? ¿Por el bien de quién? Es evidente que las mujeres no son su preocupación. De hecho, las vidas de las mujeres que mueren y son agredidas bajo el manto de la violencia machista no son una prioridad para el Gobierno español. No se establecen ni las medidas ni los recursos oportunos para terminar con las continuas agresiones y homicidios. Igualmente la calidad de vida de las mujeres está empeorando, ya que la desaparición de los servicios públicos las conduce a tener que desarrollar más labores de cuidado de personas. Por ejemplo, el Gobierno español del PP está eliminando las ayudas dirigidas a personas dependientes, sean adultas, menores o personas con diversidad funcional. Estos cuidados de los que ya no se responsabiliza el Estado recaen sobre las familias, y más concretamente, sobre las mujeres.



## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

*Esanguratsua da, baita ere, kontrarreformarekin tematzen diren bitartean, prebentzioa lantzeari uko egiten diotela, haur eta gazteen hezkuntza afektibo-sexuala garatzeko baliabide gero eta urriagoak eskainiz.*

*Asimismo, es bien revelador que mientras se empeñan con esta contrarreforma renuncian a trabajar en la prevención, destinando cada vez menos recursos para la educación afectiva-sexual de niños, niñas y jóvenes.*

*Edozein modutan, gauza jakina da (eta Munduko Osasunaren Erakundeak ere hala onartzen du) lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko. Aldiz, haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatera behartuko ditu. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten emakumeek klandestinitatera joko dute, emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena gehituz. Bestalde, kontrarreforman ezarri asmo diren abortatzeko baldintza horiek ibilbide eta tramite korapilatsuak ezartzen dituzte, haurdunaldia eteteko unea atzeratuz eta emakumeon bizitzen gainera arriskuak handituz.*

*De cualquier forma es bien sabido (así lo admite la Organización Mundial de la Salud) que una ley restrictiva no disminuirá el número de abortos. Sin embargo, condenará a las mujeres que quieran abortar a la clandestinidad o a viajar al extranjero. Las que tengan menos recursos económicos recurrirán a la clandestinidad, añadiendo, a la discriminación por ser mujer, su condición socio-económica. Por otra parte, las condiciones que se establecerán en la contrarreforma para abortar conllevan trámites complicados, que harán retrasar el momento de interrumpir el embarazo y aumentar, así, los riesgos para la vida de las mujeres.*

*Beraz, PPren gobernuak, jaio ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu, eta ez da kezkatzen emakumeek izan dezaten bizitzea merezi duten bizitza.*

*Por lo tanto, con la excusa de defender los derechos de los no natos el Gobierno del PP pisotea los derechos de las mujeres, y no se preocupa en absoluto de que las mujeres vivan una vida que merezca la pena vivir.*

*Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako eraso honen aurrean, Udal honek:*

*Ante este ataque a la autonomía, a la vida y al cuerpo de las mujeres, este Ayuntamiento:*

- 1. PPK aurkeztutako "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen*

- 1. Rechaza el anteproyecto de "Ley para la protección de la vida del concebido y de*

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

- babeserako" legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.*
- los derechos de la mujer embarazada" presentado por el PP, por ser reaccionario y porque vulnera los derechos de la mujer.*
- 2. Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.*

*2. Ratifica su compromiso para con la autonomía de la mujer y más concretamente para con su autonomía reproductiva. La voluntad de la mujer debe ser el eje y la condición principal en la decisión de interrumpir el embarazo.*
  - 3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko neurriak har ditzala, legebideak jorratuz, osasun-babesa eta babes soziala bermatu ahal izateko.*

*3. Insta al Gobierno Vasco a que tome medidas para que las mujeres puedan decidir libremente sobre su cuerpo y la reproducción, mediante los trámites legales oportunos, para poder garantizar su salud y su protección social.*
  - 4. Udal honek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objektiboa arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.*

*4. Este Ayuntamiento se manifiesta favorable a que la Interrupción Voluntaria del Embarazo se lleve a cabo dentro del sistema público de salud, que se regule la objeción de conciencia del personal sanitario y a que se garantice que en dichos centros públicos haya personal profesional capacitado para que las mujeres ejerzan su derecho a la Interrupción Voluntaria de Embarazo.*
  - 5. Udal honek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarritzkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeke ahalmena izan dezaten.*

*5. Insta a que los cambios que se introduzcan en la Ley 2/2010 del 3 de marzo sean para ampliar los derechos básicos y propios de las mujeres con el fin de que puedan decidir si quieren ser madres o no.*
  - 6. Kontrarreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta*

*6. Reconoce la labor que han realizado los movimientos feministas y el movimiento de mujeres para poder dar una respuesta unida a esta contrarreforma, y asimismo*

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.01.28

- |   |  |
|---|--|
| <i>Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.</i>   | <i>se une a las movilizaciones convocadas para defender este derecho.</i>  |
| 7. <i>Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako Gobernuaren eta PPren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.</i> | 7. <i>Llama a la ciudadanía a expresarse a favor de la autonomía de la mujer y concretamente a favor de este derecho fundamental, y a participar en las movilizaciones contra la contrarreforma del Gobierno de España y del PP.</i> |
| 8. <i>Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardonari helaraziko zaie."</i>  | 8. <i>Notificar este acuerdo al Gobierno Vasco, al Gobierno del Estado Español y al Ministro de Justicia Alberto Ruiz Gallardon."</i>  |

### 5.- Erreku-galderak.

... Alkatea. "Aipatu urtarilaren 11an debeku guztien gainetik eskubide zibil eta politikoaren alde Bilbon egin zen manifestazioa eta herri honek erakutsi zuen jarrera eta prestutasuna garai berritara egokitzeko. Zoriondu nahiko nituzke hori egitea posible egin zuten eragile politiko-sozial guztiek, Azken finean bezperan ilegalizazio etorri zen eta bertan Euskal Herrian momentu honetan dauden bi ildo politiko nagusiek erantzukizunez erantzun zien gaiari, herriak eskatzen zuen bezala. Eta zoriondu nahi nituzke, hemen, alderdi horien izenean dauden kide guztiei. Eta ez daudenei gonbitea egin etorkizunean hurbil daitezen."

### 5.-Ruegos y preguntas.

Besterik gabe, gaueko zortzi t'erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y media de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA